

# Emakumeen bila dabilta industriarako

Euskal industriaren etorkizuna, birmoldaketa sakoneko bi hamarkaden ondoren, arriskuan dago eskulan espezializatu faltaren ondorioz. Euskal Patronala, egoeraz jabetuta, emakumea industria sektorera sartzearen alde agertu da.

DANIEL UDALAITZ

**ESKULAN ESPEZIALIZATU** nahikorik ez dagoenez, industriaren etorkizuna arriskuan dago. Laurogeiko hamarkadan eta laurogeita hamarrekoaren zati batean Hego Euskal Herriak pairatutako industria birmoldaketek, batez ere siderurgia, ontzīgintza, etxetresna elektriko eta ekipoko ondasunen sektoreetan izandakoek, gazteak industriatik aldentzea eragin dute. Birmoldaketa basati haiek nozitu zituzten gurasoek ez zuten nahi seme-alabek ere halako egoerarik jasatea, eta hezkuntza politikak ere ez du lagundu birmoldatutako industria berrien etorkizuna prestatzen. Guraso zein hezitzaileek unibertsitatearen bidez seme-alabak eta ikasleak beste sektoreetara bideratzea nahiago izan dute, etorkizun hobea ikusten ziotelako. Garai batean eskola propioak izaten zituzten euskal enpresa handiek, alde batera utzi zuten hainbat eta hainbat hamarkadetan industriari –garai hartan gehiena astunasegida emateko balio izan zuen espezientzia garrantzitsu hura.

Ondorioak, gaur egun, nabarmenak dira: industria birmoldatu eta berrituak behar duen eskulan espezializatu falta da Euskal Herrian. Egoerari irtenbidea emateko, zenbait sektore –ontzīgintzarena esaterako– Galizia, Kantabria eta Andaluziako espezialistengana jotzen ari dira, galdaragileak, soldatzaileak, hodilariak eta doitzzaileak lortzeko.

## Etorkinekin ez da nahikoa

Azken hamarkada honen hasierarako ekonomiaren gabezia nagusia eskulan



IMH

Industrian eskulan espezializatu behar dela eta patronala emakumeak erakarri nahian dabil. Lanbide Heziketako ikastetxei, bestelako ikastetxei eta enpresei hainbat gomendio eman die. Argazkian, Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuko ikasleak.

falta zen. Patronalak egindako azterketaren arabera, 18.000 langile behar ziren, horietatik 13.000 espezializazio maila handikoak. Zortzi urte pasatu ondoren, egoera larriagotu egin dela dirudi. Confebask patronalak berriki ohartarazi duenez, enpresen lehiakortasunaz gain zenbait enpresen bizi-raupena bera ere arriskuan dago.

Hainbat kasutan etorkinen eskulanari esker egoerak zertxobait hobera egin badu ere, ez da nahikoa arazoa konpontzeko. Nolabait moldatu du espezializatu gabeko langileen (peoien) gabezia, baina ez hainbat industria arlotako eskulan espezializatuaren falta. Horixe da 250.000 langiletik gora dituen industriak gaur egun

duen erronketako bat. Patronalaren arabera, arrazoi demografikoak direla eta, egoera honek gutxienez hamabost urte iraun ditzake, eta horrek, ordainetan, hainbat enpresaren hazkundea oztapatuko du.

## Emakumeak hartzearen aldeko apustua

Gauzak horrela, tradizioz gizonezkoek bete izan dituzten industriako ekoizpen lanpostuetan emakumeak hastearen aldeko apustua egiten ari da euskal patronala. Helburu horrekin diseinatu du azken boladan gartzten ari den plan estrategikoa. Confebask-ek onartu du ez dela erraza izango egoerari buelta ematea, Eus-

## Emakumeak industrian sartzeko gomendioak

Emakumea industrian sartzeko apustua aurrera eramateko, patronalak zenbait gomendio orokor eman dizkie Lanbide Heziketako ikastetxe, enpresa eta bestelako ikastetxeei. Oro har, industriaren sektorea gogorra eta zikina dela zabaldu duen mitoa suntsitu nahi du patronalak; bainugelak, aldagelak, eta abar berritzeko dauden diru laguntzen berri eman du esate baterako. Emakumezkoak hartzearen aldeko ekintzak egiteko eskatu du, hala nola, enpresei sariak eman eta berdintasun praktikak erabili. Horretarako honako eskaerak egin dizkie hainbat esparruri:

✓ Lanbide Heziketako ikastetxeei: batetik, eskasia dagoen adarretan emakumezko prestatzaileen presentzia susta dezatela eta, bestetik, emakumezko ikasleak erakar-

tzeko eta oztupoak gainditzea ahalbidetuko duten prestakuntza espazioak jartzeko marketing estrategiak susta ditzatela.

✓ Enpresei: adin nagusikoenek izaten dituzten erreparoen gainean lan egin dezatela aurreiritziak alde batera uzteko, enpresetara joaten diren emakumeen autoestimua sendotu dezatela, eta istripuak gertatzen direnerako emakumeen ezaugarri eta egoera berezietara egokitutako prebentzio arauak jar ditzatela.

✓ Ikastetxeei: emakumeek bokaziozko erabakiak generoak baldintzatu gabe hartzea susta dezatela, bide hau aukeratzen duten emakume langileen irudia bultzatzea Lanbide Heziketako azoketan, eta lanbide orientazioa Bigarren Hezkuntzara aurreratu eta Unibertsitate Orientazio Zerbitzuan landu dezatela.

kal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako ikasketa teknikoak egiten ari diren ikasleen %8,25a besterik ez baita emakumezkoa.

Hala ere, azken urteotan gero eta emakume gehiago ari dira lanean industriako lanpostu horietan. Murgibe aholkularitza enpresa independenteak egindako ikerketak ondorioztatu duenez, galdetutako emakumeen %98ari ez zaio soldatan diskriminaziorik egiten. Bi herenek kontratu mugagabea dute eta %84ak dio gustura dagoela dauzkan lan baldintzekin. Kontaktatutako 314 emakumezko multzotik 84rekin osatutako lagina erabili

da azterketa egiteko. Guztiek 2002tik aurrera ikasi zuten elektrizitate eta elektronika, fabrikazio mekanikoa, ibilgailu autopropulstuen mantentze lana, ekoizpen zerbitzuen mantentze lana, edo eraikuntza eta obra zibila. Horiek guztiak espezialista eskasia duten jarduerak dira. Galdegin zitzairen emakumeen %30ak unibertsitateko ikasketak ditu eta kopuru horretatik %35ak bukatuak gainera.

Aipatutako Lanbide Heziketako titulazioen jabe diren %2,5a baino ez dago langabezian eta, ikerketaren egileek ziurtatu dutenez, %70a ez da inoiz diskriminatuta sentitu. Alabai-

## Patronalak industrian emakumezkoaren eskulan espezializatua sartzeko apustua egin du, tradizioz gizonen betetzen zuten sektorean

na, ia heren batek (%29k) kritikatu du gizonetzko lankideek baino gehiago erakutsi behar izan duela lanerako balioa.

### Emakumezko gutxi dago oraindik

Euskal patronalak dioenez emakumeen ekarpena funtsezkoa izango da euskal industriaren etorkizunarentzat, Lanbide Heziketaren gaur egungo sistemak ez baitie beharizan guztiei erantzuten. Erretiroa hartzen duten langileak ordezkatzeko arazoak izateaz gain, lehiakortasunaren eta enpresen hazkundea daude arriskuan.

Industria sektore honetara emakumeak ekartzeko ahaleginak egin arren, enpresen %90ean baino gehiagotan beraien presentzia oraindik ere "testigantza" da. Hala ere, enpresa batzuetan emakumezkoek langileraren %20 eta %40 artean osatzen dute.

Patronaleko ordezkariak jakinarazi dutenez, aholkularitza enpresak egindako ikerketak gabezia handia utzi du agerian: eskolaren esparruan lanbide orientazio eta aholkularitza ez dagoela. Galdetutako emakumeen %33,9ak ez du inolako aholkularitza jasotako %64,3a unibertsitate bideratu zuten, Lanbide Heziketaren aipamenik egin gabe. ■

